

**“Bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza”
aldatu baino lehen, aurretiko kontsulta publikoa egiteko iragarkia**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak hainbat berrikuntza ekarri ditu legeak eta erregelamenduak idazteko orduan; besteak beste, jaso egin beharko da zer iritzi duten horri buruz etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 133. artikuluan, honako hau xedatzen du:

“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille eta ez-erregulatzailleak.”*

Bergarako Udalaren asmoa da “*Bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza*” aldatzea.

39/2015 Legean zehaztutako prozedura betetzeko asmoz, udalak erabaki du “*Bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza*”ren aldaketa onartu baino lehen, horri buruzko aurretiko kontsulta publiko bat egitea.

Horrenbestez, egoki irizten duten herritarrek, erakundeek edo elkarteek parte hartu ahal izango dute, beraien ekarpenak aurkeztuz **2020ko otsailaren 9ra arte**, bi bide hauetatik edozein erabilita:

- Posta elektronikoa erabiliz, postontzi honetara bidalita: idezkaritza@bergara.eus
- Iradokizunak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuz (San Martin Agirre plaza 1).

EKIMEN HONEN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Bergarako udalean indarrean dagoen “*Bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza*”k ez dio erantzuten hainbat egoeratan udalak aplikatu nahiko lukeen malgutasuna dela-eta egoerek eskatzen duten salbuespen edo aplikazio berezien beharrari.

ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Ez da lehen aldia ordenantzan jasotako okupazioaren inguruko arauak modu flexiblean edo salbuespen puntualak aplikatzeko beharra izan dela eta ezinean aurkitu dela udala.

Salbuespena izanda ere, aldaketa-premia dator COVID-19ak merkataritza-jardueretan eta bereziki ostalaritzan eragin duen krisia dela-eta jardueren moldaketarako premiatik.

Kasu honetan ez da ahaztu behar ostalaritzaren moldaketa-premia horrek herritarren osasunaren segurtasun edo prebentziorako neurri bereziei erantzuten diela, ahaztu

gabe ere gure gizartearen harremanetarako guneak direla taberna-inguruak modu oso zabalean.

Horregatik ere, eta Euskal Herriak duen eguraldi edo klimak ere eskatzen du orain arte debekatuak ziren toldope edo antzeko instalazioak baimentzea, betiere, hori bai, herritar denen interes eta eskubideen arteko oreka bilatuz.

Eta horregatik ere, terrazen ordutegietan ere, salbuespen-moldaketak egiteko aukera aurreikustea nahi da eta horretarako moldaketa egin nahi da ordenantzan, beti salbuespen edo ezohiko behar puntualetarako.

ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HELBURUAK

Ordenantza honetan egingo den aldaketa hau izango da:

23. artikulua erantsiko da

1.- Udalak, Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki bidez, ordenantza honetan jasotakoetan salbuespenak aplikatzeko aukera izango du, baita ordenantzaren aurka joanda ere.

Betiere salbuespen moduan, ordenantza-eduki batzuk ez aplikatzeko baimena eman ahal izango du, bai eta ordenantzaren artikuluetan jasotzen ez diren arau edo aspektu batzuk aplikatzeko baimena eman ere, edo, are gehiago, ordenantzarekin kontraesanean dauden alderdiak aplikatzeko baimena ere eman.

Salbuespen horiek ezohiko egoerei edo premia edo behar puntualei erantzungo diete (jaiak...), justifikatuta hartuko dira eta ezingo dute inoiz salbuespen-izaera galdu.

Edozein salbuespen aplikatu ahal izateko baimenak ez du eskubiderik sortuko salbuespen hori behin eta berriz errepikatzeko. Egiaztatzen bada onargarri ez diren eragozpenak edo hirugarrenenganako kalteak eragin direla, edo justifikagarritzat jotzen den beste edozein arrazoiren bat egonez gero, ordenantza jatorrizko zorrotzasun osoz aplikatu beharko da.

2.- Salbuespenak onartzeko arrazoia edo denbora pasatu denean, bertan behera geldituko dira automatikoki, erabaki baten premiarik gabe, eta ordenantzaren aplikazio zorrotzari ekingo diote okupazioaren baimendunek.

Salbuespenak aplikatzen jarraitzen badituzte, falta oso larritzat hartuko da, eta bide publikoaren okupazioa berehala bertan behera uzteko agindua emango da.

EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK EDO EZ-ERREGULATZAILEAK

Ez da aurreikusi bestelako aukera erregulatzailerik.

Argitaratze-data: 2021/01/25

Anuncio de consulta pública previa a la modificación de la “Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas en la vía pública”

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas— ha implicado novedades a la hora de redactar leyes y reglamentos; entre otras, la necesidad de recabar la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados.

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas—, en su artículo 133 dispone lo siguiente:

“1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
- c) Los objetivos de la norma.*
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.”*

Es intención del Ayuntamiento de Bergara proceder a la modificación de la “Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas en la vía pública”.

Con el objetivo de cumplir el procedimiento dispuesto en la Ley 39/2015, el ayuntamiento ha decidido llevar a cabo una consulta pública previa antes de la aprobación de la modificación de la “Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas en la vía pública”.

Por tanto, la ciudadanía, organismos o asociaciones que lo estimen oportuno podrán participar presentando sus aportaciones **hasta el 9 de febrero de 2021**, por cualquiera de estas dos vías:

- Mediante correo electrónico enviado al buzón idazkaritza@bergara.eus
- Presentando sus sugerencias en el Registro General del Ayuntamiento (plaza San Martín Agirre 1).

PROBLEMAS QUE SE QUIEREN SOLVENTAR MEDIANTE ESTA INICIATIVA

La “**Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas en la vía pública**” que está vigente en el Ayuntamiento de Bergara no da respuesta a la necesidad de excepciones o aplicaciones extraordinarias precisas en algunas situaciones en las que el ayuntamiento quisiera aplicar la flexibilidad.

NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA

No es la primera vez en que el ayuntamiento se encuentra imposibilitado ante la necesidad de aplicar de modo flexible o con carácter de excepción puntual las normas sobre ocupación que recoge la ordenanza.

Aun con carácter excepcional, la necesidad de modificación viene de la necesidad de adaptación de las actividades por la crisis generada en el sector mercantil y especialmente en la hostelería.

En este caso no debemos olvidar que la necesidad de adaptación de la hostelería responde a medidas especiales para la seguridad o prevención de la salud de la ciudadanía, sin olvidar tampoco que el entorno de los bares en un sentido muy amplio constituyen ámbitos para relacionarnos en nuestra sociedad.

Por ello, además, la climatología en el País Vasco también exige la autorización de toldos o instalaciones similares, que hasta ahora estaban prohibidos, siempre, eso sí, buscando el equilibrio entre los intereses y los derechos de toda la ciudadanía.

Y por ello también, en cuanto a los horarios de terraza se quiere contemplar la posibilidad de establecer ajustes excepcionales, adaptando para ello la ordenanza, siempre con carácter excepcional o para necesidades extraordinarias.

OBJETIVOS DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA

La modificación que se realizará en la ordenanza será la siguiente:

Se añadirá el artículo 23

1.- El ayuntamiento, mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local, estará facultado para aplicar excepciones en cuanto al contenido de esta ordenanza, incluso entrando en contradicción con la misma.

Siempre con carácter de excepción, podrá autorizar la no aplicación de algunos contenidos de la ordenanza, así como la aplicación de normas o aspectos no contemplados en el articulado de la misma, o incluso la aplicación de aspectos que la contradigan.

Dichas excepciones deberán responder a situaciones extraordinarias o a necesidades o exigencias puntuales (fiestas...), su adopción deberá justificarse y no perderán nunca el carácter de excepcionalidad.

La autorización para aplicar cualquier excepcionalidad no generará ningún derecho a repetirlo reiteradamente. La constatación de haber ocasionado molestias no aceptables, daños a terceros o cualquier otra razón que se entienda justificable implicará la aplicación de la ordenanza con todo su rigor original.

2.- Una vez desaparecido el motivo o transcurrido el plazo para el que fueron aprobadas, las excepciones quedarán automáticamente sin efecto, sin necesidad de acuerdo expreso, y las personas o entidades con autorización de ocupación deberán retomar la aplicación estricta de la ordenanza.

Si continuaran con la aplicación de las excepciones se considerará falta muy grave y se ordenará el cese inmediato de la ocupación de la vía pública.

OTRAS OPCIONES REGULADORAS Y NO REGULADORAS QUE PUEDAN EXISTIR

No se prevé ninguna otra opción reguladora.

Fecha de publicación: 2021/01/25